## MUNGIAKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDU MUGATUA ARAUTZEKO ORDENANTZA

**1. artikulua.- Xedea.**
Ordenantza honen xedea hauxe da: trafikoa antolatzen eta hobetzen laguntzea. Horretarako, mugatu egingo da 3.500 kg arteko ibilgailuek, edozein zerbitzu partikular edo publiko eskaintzen dutenek, gune eta bide publikoetan aparkatzeko duten tokia eta denbora.
Era berean, honen guztionen helburua zera da: herriko zenbait tokitan, aparkalekuen eskaintzaren eta eskaeraren arteko oreka handiagoa lortzea. Hori lortzeko, murrizketa, kontrol eta inbertsio jarduerak burutuko dira. Jarduera horiek Udalak berak burutu ahal izango ditu, edo zerbitzu hori eskaintzeko kontratatuko diren enpresa laguntzaileek.

**2. artikulua.- Seinaleak.**
Ordenantza honen I. Eranskinean agertzen diren kaleek osatzen dituzte araudi berezi honen menpe dauden guneak. Gune horiek behar bezala seinaleztatuko dira, eta seinale bertikalak (ahal den lekuetan) eta horizontalak jarriko dira.

Era berean, Alkate-Udalburuak emango du aditzera araudi hau noiz sartuko den indarrean gune bakoitzean, eta aldi berean, gune horien mugak zeintzuk diren esango du. Horren berri emateko, Udaletxeko Iragarki-oholean eta WEB orrian jarriko dira iragarkiak.

**3. artikulua. Ordainketa.**
Ez da ordaintzeko obligaziorik izango, ibilgailua arautútako aparkaleku gisa behar bezala seinaleztatutako leku edo bide publikoetan aparkatzen bada.

**4. artikulua.- Tartea.**
Araupeko aparkalekuan, gehienez ere, ordubetez aparkatu ahal izango dira ibilgailuak. Denbora hori igaro ondoren, ezin izango da araututako gune horretan berriro aparkatu, 2 ordu igaro arte.

Aparkaldi mugatuak ordutegi hau izango du: Astelehenetik larunbatera, goizeko 9:00etatik 13:30era, eta astelehenetik ostiralera, 16:00etatik 20:00etara.

Dena den, Alkate-Udalburuak ahalmena izango du gehienezko ordutegi hori

## ORDENANZA REGULADORA DEL APARCAMIENTO LIMITADO EN EL TIEMPO DE VEHICULOS EN DETERMINADAS VIAS PUBLICAS DEL MUNICIPIO DE MUNGIA

**Artículo 1. Objeto.**
Esta Ordenanza tiene por objeto ayudar a ordenar y mejorar el tráfico, mediante la limitación espacial y temporal del estacionamiento de toda clase o categoría de vehículos hasta 3.500 Kg destinado al servicio particular o público en lugares o zonas de la vía pública y aparcamientos previstos en la misma.
Constituye su objetivo la consecución de un mayor equilibrio entre la oferta y la demanda de estacionamiento en distintas zonas del municipio y para ello se desarrolla con actuaciones de limitación, control e inversión, destinadas al cumplimiento del citado fin, que puedan realizarse por el Ayuntamiento, bien directamente o con el auxilio de empresas contratadas para la prestación del servicio destinadas a dicho servicio.

**Artículo 2. Señalización.**
Las zonas objeto de esta especial regulación se reflejan en la relación de calles que figuran en el anexo I de esta Ordenanza. Dichas zonas estarán adecuadamente señalizadas, tanto verticalmente donde sea posible, como horizontalmente.

Asimismo, la Alcaldía Presidencia hará pública la fecha de entrada en vigor de esta normativa en cada una de las zonas, indicando sus límites, en el Tablón de Edictos de la Casa Consistorial y en la página WEB municipal.

**Artículo 3. Pago.**
No existirá obligación de pago por el aparcamiento de un vehículo en los lugares o vías públicas que estén debidamente señalizadas como zonas de estacionamiento regulado.

**Artículo 4. Periodo.**
El periodo máximo de estacionamiento de un vehículo en la zona de estacionamiento regulado será de 1h. Transcurrido éste plazo no podrá volver a estacionar en la zona regulada hasta pasadas 2 horas.

El horario que se establece para el funcionamiento del estacionamiento limitado será de lunes a sábado desde las 9:00 horas hasta las 13:30 horas y de lunes a viernes desde las 16:00 horas a 20:00 horas.
Todo ello, sin perjuicio de la facultad que se le confiere a la Alcaldía Presidencia para modificar,

aldatzeko, zabaltzeko edo murrizteko, baita ordenantza honetan ezarritako egunak, orduak eta aplikazio guneak aldatzeko ere. Eta aldaketa horiek egin ondoren, emango zaio horren berri Udalbatzari.

ampliar o reducir dicho tiempo máximo, así como los días, horas y zonas de aplicación de esta Ordenanza, dando cuenta de ello con posterioridad al Pleno.

**5. artikulua.- Salbuespenak.**
Seinaleztatutako bideetan edo guneetan aparkatzen duten ibilgailu guztiek bete beharko dute Ordenantza hau, honako hauek izan ezik:

a) Motozikleta, ziklomotore eta bizikletek, baldin eta aparkaldi mugatuko plazak okupatzen ez badituzte, eta horrelako ibilgailuak aparkatzeko egokitutako lekuetan aparkatuta baldin badaude.

b) Gordetako guneetan aparkatutako ibilgailuek, baldin eta beren kategoriarako edo jarduerarako udal baimena badute.
c) Merkataritzako ibilgailuek, baldin eta horretarako jarritako tokietan eta orduetan zamalanak egiten ari badira.
d) Auto-taxi ibilgailuek, baldin eta gidaria bertan badago eta lanean ari bada.
f) Larrialdietarako ibilgailuek: Anbulantziak, suhiltzaileak, Gurutze Gorria, DYA eta polizia, baldin eta horiek guztiak zerbitzuan badaude.
g) Automobilek, baldin eta gidaria edo bidaiariren bat barruan badago, eta aparkaldia bost minututik beherakoa baldin bada.
h) Minusbaliatuen jabetzako ibilgailuek edo bereziki egokitutako ibilgailuek, baldin eta horien jabeak dagokion zirkulazio baimenaren titular diren minusbaliatuak badira, eta titularrak erabiltzen baditu. Ibilgailu horiek propio seinaleztatutako tokietan aparkatuko dira.

**Artículo 5. Exclusiones.**
No estará sujeto a esta Ordenanza, el estacionamiento en las vías o zonas señaladas de los siguientes vehículos:
a) Motocicletas, ciclomotores y bicicletas siempre que no ocupen las plazas señalizadas para el aparcamiento limitado y se circunscriban a los lugares que se habiliten para ello.
b) Los vehículos estacionados en zonas reservadas con autorización municipal para su categoría o actividad.
c) Los vehículos comerciales que estén realizando labores de carga y descarga y únicamente en las zonas y horarios asignados para ello.
d) Los vehículos auto taxi, cuando el conductor esté presente y en servicio.
f) Los vehículos de urgencias, ambulancias, bomberos, Cruz Roja, DYA y Policía, todos ellos cuando estén prestando servicio.
g) Los vehículos automóviles en cuyo interior permanezca el conductor o algún pasajero, siempre que el tiempo de estacionamiento sea inferior a cinco minutos.
h) Los coches de minusválidos o especialmente adaptados, que pertenezcan a minusválidos titulares del correspondiente permiso de circulación y estén siendo utilizados por su titular, en los lugares que se señalicen para ellos a tal efecto.

**6. artikulua.- Bertako bizilagunentzako bereizgarria.**
Oraingoz ez da egoiliar-txartelik emango.

**Artículo 6. Distintivo de Residente.**
Por el momento no se concederán tarjetas de residente.

**7. artikulua.- Betebeharrak.**
Ordenantza honetako bigarren artikuluan aipatzen diren bide publiko eta aparkalekuetan aparkatu ahal izateko, baldintza orokor eta zehatz guztiak bete beharko dira, baita aparkatzeko seinale guztiak errespetatu ere; eta horretaz gain, ibilgailuaren aurreko kristalaren barnealdean, kanpotik erraz ikusteko moduan, aparkatzeko baimena ematen duen txartela jarri beharko da (aparkatu aurretik makina banatzailean jaso behar dena).

**Artículo 7. Requisitos.**
Para estacionar en las vías públicas y aparcamientos a que se refiere el artículo 2 de la presente Ordenanza, además de cumplir todas las normas generales y particulares y observarse las señalizaciones que afectan al estacionamiento de vehículos, deberán exhibir en el interior del parabrisas, totalmente visible desde el exterior, el ticket que autoriza el estacionamiento y que se recogerá en la máquina expendedora, antes de estacionar el vehículo.

**8. artikulua.- Zigor araubidea.**
1. Ordenantza honen edozein artikulu haustea eta Alkate-Udalburuak ordenantza hau garatzeko emandako xedapenak haustea, trafiko antolamenduko eta zirkulazioko arau-haustetzat hartuko dira, eta ezarritako legezko prozeduraren bidez, zigorra jarriko zaie.

2. Behar bezala eskatuz gero, ibilgailuaren titularrak arau-haustea egin duen gidari erantzulea identifikatu beharko du, eta dagokion prozedurazko izapidean justifikaziorik gabe obligazio hori bete ezean, berari jarriko zaio 8.3.f) artikuluan jasotako arau-haustearen zigorra.

3. Honako hauek izango dira arau-hausteak:
a) Txartelean aparkatzeko jarritako gehienezko denbora pasatzea.
b) Ordenantza honetan adierazitako txartelik gabe aparkatzea, edo hori ez ikusteko moduan jartzea. Udalak txartela erakutsi beharrik ez dagoela erabakitzen badu, hori erakutsi ez izana ez da arau-haustetzat joko.
c) Aparkatzeko gehienezko denbora bukatu, eta bi orduko epea igaro aurretik, gune berean aparkatzea.
d) Txartel edo bereizgarri manipulatua, faltsua, baliogabetua, indargabetua edo desegokia erabiltzea.
e) Ordenantza honetan adierazitako beste edozein baldintza ez betetzea.
f) Aurrez eskatuta ere, arau-haustea egin duen gidari erantzulea ez identifikatzea.

**9. artikulua.**
Arau-hausteak honako legeek ezarritakoari jarraituta zigortuko dira: Trafikoari, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bateratua onartzen duen martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege-Dekretuaren testu artikulatuaren V. titulua, testu artikulatua erreformatzen duten martxoaren 24ko 5/1997 Legeak aldatutakoa; abenduaren 19ko 19/2001 Legea eta gainerako lege-xedapen osagarriak eta udal ordenantzak.

8.3 artikuluko a), b) c) eta e) ataletan tipifikatutako arau-hausteei 30 euroko isuna jarriko zaie (kopuru hori urtero berrikusiko da). Isuna jarri eta ondoko hiru orduetan ordainduz gero (makinan bertan edo Udaltzaingora joanda), isuna 15 eurokoa izango da. 8.3 artikuluko d) eta f) ataletan tipifikatutako arau-hausteei 90 euroko isuna jarriko zaie (kopuru hori urtero berrikusiko

**Artículo 8. Régimen sancionador.**
1. La infracción a cualquiera de los artículos de la presente Ordenanza, así como de las disposiciones que en su desarrollo se dicten por la Alcaldía-Presidencia, tendrán la consideración de infracciones a las normas de ordenación de tráfico y circulación y traerá consigo la imposición de sanciones mediante el procedimiento legal establecido.
2. El titular del vehículo, debidamente requerido para ello, tiene el deber de identificar al conductor responsable de la infracción y si incumpliera esta obligación en el trámite procedimental oportuno sin causa justificada, será sancionado como autor de la infracción recogida en el artículo 8.3.f

3. Se consideran infracciones:
a) Rebasar el tiempo de estacionamiento señalizado en el ticket horario de aparcamiento.
b) Estacionar sin el ticket contemplado en la presente ordenanza, así como no colocarlo en sitio visible. En el caso de que el Ayuntamiento decida que no sea necesario exhibir el ticket, no se considerará infracción la no exhibición del mismo.
c) Volver a estacionar en la misma zona, una vez finalizado el período máximo de estacionamiento y sin que haya transcurrido el plazo de dos horas.
d) Utilizar un ticket o distintivo manipulado, falseado, anulado, caducado o no idóneo.
e) Incumplir cualquier otra condición señalada en la presente Ordenanza.
f) No identificar al conductor responsable de la infracción, previo requerimiento.

**Artículo 9.**
Las infracciones se sancionarán en virtud de lo establecido en el Real Decreto Legislativo 339/1990, de 2 de marzo, Texto Articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de vehículos a motor y Seguridad Vial en su título V, modificado mediante Ley 5/1997, de 24 de marzo, de Reforma de aquel Texto Articulado, Ley 19/2001, de 19 diciembre, y demás disposiciones legales, complementarias y ordenanzas municipales.

Las infracciones tipificadas en el Artículo 8.3 a), b), c), e) serán sancionadas con 30 € (cantidad que será revisada anualmente). En caso de pronto pago en las tres horas siguientes, la sanción será de 15 €. En los supuestos contemplados en el Artículo 8.3 d) y f), la sanción será de 90 € (cantidad que será revisada anualmente)

da).

10.3 artikuluko a), b), c) eta d) ataletan tipifikatutako arau-hausteak trafikoaren eta aparkamenduaren antolamendurako eta hobekuntzarako oztopo larritzat joko dira; beraz, udal agintariek behar ez bezala okupatutako gune publikoa libratu eta berreskuratuko dute . Hori dela-eta, arau-hauste horri jarriko zaion isunaz gain, ibilgailu hori erretiratu eta ibilgailuak uzteko prestatuta dagoen tokira eramango dute.

Las infracciones tipificadas en los apartados a), b), c), d) del Artículo 8.3, al constituir un grave obstáculo para la ordenación y mejora del tráfico y del servicio público de aparcamiento, determinarán por sí mismas que por la autoridad municipal se proceda a recuperar la libre disposición del espacio público indebidamente ocupado, retirando dicho vehículo y transportándolo al lugar preparado a tal efecto para su depósito, con independencia de la sanción económica que se imponga.

Ibilgailua bide publikotik kentzeko zerbitzua eskaini izanak Ibilgailuak Bide Publikotik Jaso eta Eramateko Zerbitzua Emateagatik Ordaindu Beharreko Tasa Arautzeko Udal Ordenantzan xedatutako tasak sorraraziko ditu. Ibilgailua itzuli aurretik tasa horiek guztiak ordaindu beharko dira.

La prestación del servicio de retirada del vehículo de la vía pública, devengará las tasas previstas en la Ordenanza Municipal Reguladora de la Tasa por la Prestación del Servicio de Inmovilización, Retirada de Vehículos de las vías urbanas y traslado de los mismos al depósito municipal, a cuyo tenor éstas deberán ser satisfechas antes de la devolución del vehículo.

Ordenantza honetan xedatu gabeko kasuetan honako hauek izango dira kontuan: Bide publikoetako Erabilera, Trafikoa, Zirkulazioa eta Segurtasuna Arautzen dituen Ordenantza, eta ezar daitekeen gainontzeko legedia.

En lo no previsto en la presente Ordenanza, se estará a lo dispuesto en la Ordenanza Municipal de Circulación y demás legislación que resultara aplicable.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluak ezarritakoaren arabera, behin betiko onartutako testu osoa argitaratu eta aipatutako legearen 65.2 artikuluak ezartzen duen epea igarotakoan sartuko da indarrean Ordenantza hau.

La presente ordenanza entrará en vigor de conformidad con lo previsto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985 de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen local, una vez se haya publicado íntegramente el texto aprobado definitivamente y haya transcurrido el plazo previsto en el artículo 65.2 del citado texto legal con los efectos señalados en el citado artículo.

## I ERANSKINA
## ARAUTUTAKO GUNEAK

1. gunea: Alkartasuna kalea, Trobika kalea (1-13 zenbakiak) eta Bentades kalea

2. gunea: Aita Elorriaga kalea (2- 20 zenbakiak)

3. gunea: Olalde Etxetaldea (ordu 2ko aparkatze-epea)

4. gunea: Lauaxeta aparkalekua (ordu 2ko aparkatze-epea)

## ANEXO I
## ZONAS OBJETO REGULACION

Zona 1: Calle Alkartasuna, Calle Trobika (números 1-13) y calle Bentades

Zona 2: Aita Elorriaga (números 2- 20)

Zona 3: Olalde Etxetaldea (2 horas de estacionamiento)

Zona 4: Parking Lauaxeta (2 horas de estacionamiento)

Testu hau Ordenantzaren testu bategina da, 2013ko uztailaren 5eko eta 15eko ezarritako aldaketak txertatuta dituena.

Texto tras modificaciones de fechas 5 y 15 de julio de 2013.